

## Urriaren 12an, herri eskola

Hispanitatearen eguna ospatzeari uko egin zioten Ikasle Abertzaleek



### Afrika sentitu behar dela dio Jesus Presak

Afrika beltza pixka bat ezagutzeko eta 5.895 metroan dagoen Kilimanjaro gailurrera igotzeko aukera izan du Jesus Mari Presa, suhiltzaile eta mendigoizale bidaiariak. Afrikako tontorrik altuena joateko bide luzeena "eta aldi berean, ederrena" hartu zuen. Besteak beste, Afrika sentitu egin behar dela esan digu Presak. /4-5. orrialdeak

Urriaren 12an, asteazkenean, Hispanitatearen eguna ospatzeari uko egin zioten Lasarte-Oriako Ikasle Abertzaleek eta Herri eskola antolatatu zuten goizean Landaberri BHI ikastetxean.

Euskal herritarrei Hispanitatearen jai eguna inposatu egiten zaiela eta derrigorrez jai egin behar dela ikusirik, horren aurrean jarrera intsumisioa hartu zuten Ikasle Abertzaleak taldean ari diren herritarrek eta Herri Eskola antolatuz erantzun zioten beste herri askotan bezala.

### Intsumisioa

"Jai egun arrotzen aurrean, ikasleok intsumisioa!" leloari heldu eta ez dira isilik gelditu. "Euskaldunak egun hauetan jai hartu eta ospatzera behar izaten gaituzte. Ikasleok, aldiz, urte urte egutegi propioa dugu helburu".



Giro alaian eman zioten amaiera Ikasle Abertzaleak taldekoek Herri Eskolari Xirimiri elkarteko bazkariarekin.

Horrela, Bilgune Feministako kideen laguntzaz Landaberri BHI institutuan 10:30etan hasita burutu zituzten Hezkidetza tailerretan 25 bat gaztek

parte hartu zuten. Ikasle Abertzaleak taldeko herriko ordezkariak pozik dira iaz baino partaide gehiago bildu direlako aurretan.

Ondoren tailerretan parte hartu zuten gazteetako batzuk Xirimiri elkartean bazkaldu zuten eta giro alaian eman zioten egunari amaiera. •

## Ipuinen lilura

Herensugeak, zaldunak edo arkakusoak izan ziren astelehenean kultur etxeko haur liburutegian. Ez izutu.

Hauetako guztiak, ipuinetako pertsonaia baitira. Izan ere, Kontukantoko lagunek ikasturte honetako lehenengo ipuin-kontalarien saioa eskaini zuten. Haur liburutegira hurbildu ziren gaztetxoek ederki gozatu zuten arestian aipatutako pertsonaien istorioak ezagutzen.

Hitez ez ezik, irudietan ere ikusi ahal izan zituzten pertsonaia berezi horiek, Kontukantoko lagunek egindako marrazkiei esker. Gainera, herensugeetaz babesteko abesti bat ere ikasi zuten. •



Ipuin-kontalarien lehenengo saioan 6-8 urte bitarteko gazteek hainbat abentura bizi izan zituzten.

### ALBISTEAK /3

5. eduki-ontzia probatzeko erabakia hartu du Udalak

Inguruko mendi bideak eta landak ezagutzeko aukera Ibilbideen Egunean

### KIROLA/6

Areto-futboleko txapelketa herrikoia gaur hasiko da Michelingo gunean

## Bideo Lagunak

**%20 DESKONTUA**

### RENOVE PLANA

10 HILABETE INTERESIK GABE  
ETA HASI URTARRILEAN ORDAINITZEN

**BEGIRATU GURE ESKANTZAK!**

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
iose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

# ALBA

## ARROPA DENDA

KOOKAI  
NAFNAP  
VERSE

Nagusia 65 behea  
Lasarte-Oria  
Tel.:943 574450

**Neure kabuz**



**Gorria**

Nekea. Arratsaldeko zortziak, lanegun gogor baten ondoren. Etxera iristeko irrikan. Aurrean ikusten dut. Parean auzoko denda. Ixtear dago. Azken orduko enkarguak egin behar ditut! Iritsiko ote naiz? Batean aurreko egunean lankide batekin izandako elkarriketa etorri zait burura. Bizkaiko herri txiki batean bizi da eta ia egunero Donostiaraino bidai luzea egiten du kotxez. Niretzako desplazamendua gogorra izango litzatekeela esan nionean berak zera erantzun zidan: gidatzea atsegin dut, erlaxatu egiten nau. Ez zen lehenengo aldia espresio hori entzuten nuela. Alegia, badago jendea gidatzen disfrutatzen duena, eguneko tentsioak askatzeko balio omen du. Batzuk grabaia ere eramaten dute autoan, bolantean egindako bidaiak somenerako aukera eskaintzen die eta. Zein esanahi ezberdin eduki dezakeen mugikortasunak pertsonen arabera! Nik plazerra eta sormena, gorpuzaren mugimendua-ekin lotzen dut, herrian zehar libre mugitzearekin, espaloi zabalak, trabarik gabeko bideak edukitzearekin. Ikuspuntu horretatik Okendo berria eta ondoko parkea plazererako irla bihurtu daitezke... Berdea! Berdea jarri da! -entzun dut.-Egia da, azkenik! Inpresioa dut bizitza ematen dudala gizon itxura duen irudi gorri baten aurrean. Nonbait gidariak oinezkoek baino eskubide gehiago dute plazererako.

**Jone Miren Hernandez**

**Zorion-agurrak**



**Nerea**

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Txokomarrubizko muxu bat anaiaren partetik!



**Kenai**

Zorionak familiaren partetik eta batez ere, amaren partetik. Asko maite zaitut. 5 muxu.



**Oihane**

Zorionak! Amaren, aitaren eta Itxasoren partetik! Muxu pila bat!



**Gema**

Zorionak sorgina!! Egun polita pasa dezazula opa dizugu zure familia eta bereziki Oskitzek



**Ekaitz**

Zorionak zure bigarren urtebetetzean familiaren partetik.



**Intza**

Ondo ondo pasa zure 7. Urtemugan, preioxoa!!! Sara, aitaxo eta amatxoren partetik.



**Olaia**

Zorionak bizkotxi! Mila ta mila muxu handi amona, aita eta amaren partetik.



**Gaizka**

Zorionak bihurritxo! Zure bigarren urtebetetzean. Familia guztia-ren partez.



**Mikel**

Zorionak, Ane, aita eta amaren partetik



**Antonio**

Zorionak aitaxo. Asko maite zaitugu. Muxu pottolo bat Julen, Naroa eta amatxoren partetik



**Maia**

Zorionak eta zortzi txokomuxu gure neska handiarentzako Ainhiza eta gurasoen partetik



**Xabi**

Zorionak, zure lagunena, Unairen eta Naroaren partetik.

**Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia**

Bidaiaren iraupena 15 minututukoa da

Lanegunak	<b>Lasarte-Oriatik irteera</b> (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-----------	--	---

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

- 116m<sup>2</sup>-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta. 3 gela, 2 komun, jantzi-gela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiek kalera ematen dute, iñgo de loyola kalera eta geltoki kalera. Sartzeko prest. 330.000 euro. Tel: 639 73 84 13
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako zenbakia, 648 614 769
- Bi logeladun pisu alokagai Lasarte erdian. Harremanetarako zenbakia, 690 066 307.

**Lan-eskariak**

- Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Baxxi-

lergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Tel.: 680 983 527 (Carlos).

**Bestelakoak**

- Euskara, ingles, matematika, hizkuntza... eskola partikularra. Tel.: 693 601 222 edo 943 36 25 32
- Maila guztietarako klase partikularrak ematen dira: matematika, fisika, kimika, lengoia... Harremanetarako, 943 372 709 edo 617 159 559, Ana.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Jaiotzak**



- Eñaut Huici Eceiza, urriaren 11an.
- Nahia Saez de Maturana Elicegegi, urriaren 5ean.

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943 376182  
Kulturetxea ..... 943 376181  
Gizarte Zerbitzua ... 943 376179  
KIUB ..... 943 361605  
Udal euskaltegia ... 943 361621  
Muntteri AEK ..... 943 372863

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 14**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Larunbata, 15**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 16**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astelehena, 17**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteartea, 18**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Asteazkena, 19**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Osteguna, 20**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Udal batzarrean Marisa Zubirik PSE alderdia utzi duela jakin arazi zen. Argazkian ikus daitekeen bezala, ez zen batzarrean egon.

# Bosgarren edukiontzia alde da Lasarte-Oriako Udala

- EAJk eta PPK PSEren proposamenaren alde bozkatu zuten
- PSE utzi duen Zubiri zinegotzia ez zen batzarrean egon

Astearte arratsaldean Udaletxeko aretoan udal batzar mamitsua burutu zen. Hainbat gai izan ziren baina interes gehien sortu zutenak, Marisa Zubiri PSEko kideak bere taldea utzi izana eta PSE-k 5. edukiontzia buruz egindako proposamena izan ziren.

Aipatu legez, Udalbatzarrean ofizial egin zen Marisa Zubirik PSE utzi eta bere aldeko zinegotzi izaten jarraituko duela. Baina Marisa ez zen batzarrean izan eta beraz ez zuen azalpenik eman.

## Aldaketak

Gainera, erabaki horrek batzordeen funtzionamenduan aldaketak eragin ditu eta horiek onartu ziren udalbatzarrean, Bildu, EAJ eta LOH-Paren aldeko bozkek. PSE eta PP abstenitu egin ziren.

Asteartetik aurrera batzordean PSEko bi ordezkarien botoek 6ko balioa izango dute eta ez 7koa orain arte bezala.

## 5. edukiontzia

Hala baina, astearteko batzarrean hondakinen bilketaren gaia izan zen luzean jorratu

zena eta gehiena iraun zuena.

Aurreko legegaldian atez ateko bilketa probatzearen alde hartutako erabakia bertan behera utzi eta bosgarren edukiontzia probatzeko PSEK egindako proposamena onartu zen, PSE, PP eta PNVren aldeko botoekin. Bildu zein Plataformak aurka bozkatu zuten.

Nerea Sanchez-ek, Bilduko zinegotziak luze eta zabal atez ateko sistemaren aldeko hainbat datu eman zituen, antzeko herrietan bi sistemek lortu dituzten emaitzak esaterako.

Alderdi jeltzaleko Estitxu Alkorta izan zen azalpena eman zuen bakarra orain arte bosgarren edukiontzia alde izan direla gogoratu eta zera argituz, ez direla bilketa era honen eta atez ateko bilketari buruzko eztabaidan hasiko aurreko legegaldian nahikoa eztabaidatu zutelako.

## Beste gaiak

Era berean, "A-34 Goiegiko lbarra" etxebizitzaren urbanizazioaren aldaketa bat onartu zen, baita kirol zerbitzuen araudi orokorraren eta kirol arloan Buruntzaldeko udalek izenpetutako lankidetzarako

hitzarmenaren aldaketak ere.

Bestalde, Euskal Fondon udalaren ordezkaria Pablo Barrio alkatea bera eta Landa-berri BHI, Taxio Arrizabalaga zinegotzia izatea erabaki zen.

Hau guztiaz gain, Langile eta barne arloko eta zerbitzu publikoetako batzordeen egunak aldetzea onartu zen.

Hauek azarotik aurrera, hileko bigarren astelehenean izango dira, langile eta barne arlokoa 18:00etan eta zerbitzuetako 18:30ean.

Galdera eta eskaeren tzandan PSE-k Lasarte-Oriarentzat dagoen pantaila akustikoen partida dela eta, Foru Aldundiarekin harremanetan jartzeko eskatu zion. Eta bi galdera egin zituen, bata hotelaren proiektuari buruz eta bestea Aldundiak Udalarri eman dion Atsokabarreko zaharren egoitzako atzerapenari dagokion diru kopuruari buruz.

Udal Gobernuak hotelaren proiektuak aurrera jarraituko duela adierazi zuen. Baina aurretik PSE-k egindako negoziaketekin bat ez datorrela jakin arazi eta horiek bertan behera geratu zirela.

Atsokabarreko diruari buruz, udalak CLECE enpresari emateko asmoa duela aurreratu zuen.

## Herritarrek

Pleno amaieran herritarrek Haien eskaerak egiteko tartea izan zuten. Honetan, Ricardo Ortega Ezker Batuko zinegotzi ohia hondakinen bilketa sisteme datu horiek herritarrei helarazteko eskatu zion Udal Gobernuak ordezkariak.

Bestalde, Zumaburu aldeko bizilagun batek telebista errepikatzailea konpontzeko eskatu zuen. •

## IBILBIDEEN EGUNA

### Herritar guztiei irekitako mendi irteera

Buruntzaldeko Udalek antolatutako Ibilbideen 4. eguna dela eta, gure inguruko parajeak eta bere landa-inguru naturala ezagutzeko aukera ederra izango da datorren igandean, urriaren 16an 9:00etatik 14:00etara. Ostadar mendi sailak gogora arazten du, herritar guztiei irekitako ekintza dela eta bereiziki, Lasarte-Oriako haur guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Haurrak goizeko 10:00etan abiatuko dira San Pedro elizatik elkarrekin Lasarte-Andoain zatia egiteko. Aurten ere doako autobus zerbitzua egongo da eta herrira autobusez itzuliko dira. Ostadarreko arduradunek gidatu eta zainduko dituzte haurrak, baina, hala ere, gurasoek parte hartu nahi badute, aukera izango dute gurasoek ere beraiekin joateko.

## BIDE-HEZKUNTZA

### Bide-heziketa parkea Urbil-en

Bihar haurrentzako bide-heziketa parke mugikorra iritsiko da Urbil Merkatal Guneko

aparkalekura. 6 eta 12 urte arteko urritasuna eta urritasunik ez duten haurrei zuzendua dago eta helburua urritasuna duten pertsonen bide-hezkuntza arloan duten gaitasuna erakustea da.

Hirugarren urtez, Michelin Lasarte eta Adecco fundazioak bultzatu duten egitasmo honek kirolari eta kirol elkarte ezberdinen babesa du.

Parke honetaz gozatzeko, hurbil zaitzete, goizean 11:00etatik 14:00etara edo arratsaldean 15:30etik 18:30era. •



## BIYAK BAT

### Aiton amonen irteera Lizarrara

Biyak Bat erretiratuen elkarteak jakin arazten du Lizarrara irteera antolatu duela urriaren 27an, osteguna. Izena emateko epea astelehenean, urriaren 17an irekiko da. Izena eman nahi duenak egoitzako bulegora hurbildu behar du 10:30etik 12:30era. Elkarteak bazkideek 34 euro ordaindu behar dute eta bazkide ez direnek, aldiz, 38 euro. •

## ELKARTASUNA

### Somaliaren aldeko elkartasun afaria

Lasarte-Oriako parrokiarteko misio taldeak jakin arazten du, urriak 15ean, larunbatean, elkartasun afaria egingo duela Arantzazuko Ama parrokia azpiko lokaletan. Oraingo honetan Somaliara, Afrika, bidaliko dute bildutako laguntza.

Afaria joaterik ez dutenek, nahi izanez gero, diru laguntza emateko aukera dute, taldeak adierazi du laguntza jasoko dituela. Era berean, esker ona luzatu nahi diete joan den ikasturtean egin ziren afarietan parte hartu zuten herritarrei. •

## NASIPA

### Goiegiko Ibarako etxebizitzaren zozketa

Astelehenean, urriak 17, 12:30ean NASIPA etxegileak Vaguada Goiegiko 72 etxebizitzaren zozketa egingo du. Promozio honetan 2 eta 3 logelako etxebizitzak daude eta hauek BOE-ren prezio bikoitzean salduko dira. •

## ODOL-EMAILEAK

### Odol-emaielen bilkura Usurbilen

Oria Beheko odol emaielen ordezkariak Usurbilen elkartuko da urriaren 23an.

Bazkaria Atxega jatetxean antolatu da eta menua 35 eurokoa da. Gonbita eskuratzeko Joxe Usabiagarengana jo behar du. Antolatzaileek menuaren zenbatekoa gonbidapena jasotzerakoan ordaindu behar dela jakin arazten dute.

## MUSIKA ESKOLA

### Andrea Gonzalez Euskal Kantu txapelketan

Lasarte Oriako Udala Musika Eskolako Andrea Gonzalez Reza-bal ikasleak, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako bakarkako sailean parte hartuko du bihar, larunbata 15, Lezon.

Txapelketa honetako lehenengo kanporaketa izango da larunbatekoa eta honetan, Andreak ahots eta gitarrak lagundurik euskal kanta ezagun bat interpretatuko du. •



Nerea Sanchez zinegotzia 5. edukiontzia eta atez ateko sistemei buruz luze aritu zena.

Jesus Mari Presa Suhiltzaile eta mendizale bidaiera

# “Afrika sentitu egin behar da”

Abuztuko oporrak Afrika beltzean egin ditu Jesus Mari Presak bere familiarekin ■ Egonaldian Kilimanjaro mendia igotzeko aukera izan du ■ Afrikako mendia altuena da 5.895 metrorekin



Esperanto inguruan Jesus Mari Presa Kilimanjoro azken duela, hantxelekoan egiten. Eskubian gertatzen dena, ezkerrean ikusita dagoen animalia. Esperantzak, ahaztenak dira Lasarre-Orialde bizilagunentzat.

Suhiltzailea lumbidez, mendizale amorratua da Jesus Mari Presa. Gailur asko zapaldu du, Pirinioak ondo ezagutzen ditu, Bizkaiko tonor gurziak eginkor ditu eta Gipuzkoako gehienak. Euskal Herriko mendiak ondo ezagutu eta bertako bidaiezako zaletasuna eta mendia uzartzeko saiakerak egiten ditu. Udan Afrikako mendia altuenera igo da, 5.895 metroko Kilimanjaroa.

### Maiak AZURMENDI

Kilimanjaro igotzeko bide ezberdinak daude. Marangu bidea da zehar zaito, erraza izanik jende askok egiten duela. Jesus Mari Presak aldiz, tonorera iristeko ibilbide luzeana hautatu zuen bere lagunekin, Machame bidea. Luzena da baina aldi berarean, mendizaleentzat poltiena. Guztira zazpi eguneko ibilbidea izan zen, host egin igotzeko eta beste bi gaitzeko. Mendira igo ostean, jantzerako egunak Afrikako hantab txoko ezaguetan eman zituzten familiarekin batera. Tartean salari bat egin eta Masai tribua ezagutzeko aukera izan zuen.

Zengatik Kilimanjaro? Bidea nire kontatuak antolatzen zuten. Bera lagun baten egiteko zena da nire mendizaleak osatu ezagutuz, berarekin joateko animatu ninduen. Horretan prestatu genuten bidetara. Berarekin paper guztiak bidetara zituzten eta hiruk egiten genuten bidari. Behin menditik jaitsita, emaztea eta semea elkarri zitabizkigun.

**Ereza igotzen al da bat Kilimanjaro?** Mendizalearen ikuspegitik, mendia erraza da. Zatrik zailena da 4.600 metroatik 5.895 metroara bitartean dago. Bat bertakoak ziren eta noski, azkenean haren nabaritzea da eta honen eraginez, gehiago kostatzen da aurrera egitea, baina tekniko ez du zailtasun berezirik. Mendia parteko animalien baitan dago eta bertara sartu ahal izateko 600 dolar ordaindu behar dira.



Hala ere gaurerako asko jaisien ziren tenperaturak. Ondoren laba lehorrak dagoen tokitik pasa eta azken etapa, glaziarrean barrena egiten da -10 graduko inguruko tenperatura. Azken etapa hau gogorra da. Aluera asko nabaritzen da. Gaueko luntasunean egiten genuen, goizeko ordu bitartean jalki ginen igo eta gailurrean egunentzira ikusi ahal izateko.

Hala ere gaurerako asko jaisien ziren tenperaturak. Ondoren laba lehorrak dagoen tokitik pasa eta azken etapa, glaziarrean barrena egiten da -10 graduko inguruko tenperatura. Azken etapa hau gogorra da. Aluera asko nabaritzen da. Gaueko luntasunean egiten genuen, goizeko ordu bitartean jalki ginen igo eta gailurrean egunentzira ikusi ahal izateko.

**Era gailura egitean, zer?** Irtsi eta inoiz, ikusi dudun egunentzira poltiena iruditu zitzaidan. Sentazio polita eta oso berezia izan zen. Inoiz ahaztuko ez dudun esperientzia horietako bat. Alde baxerik izateko bide luzeena eta aldi berarean, asko igotzen denez, gailurrean argazkia ateratzeko ia barrena egiten dira eta tenperatura ona egiten duenez, praktika motzekin ibili ginen.

Kilimanjaroa igotzeko bide luzeena eta aldi berarean, asko igotzen denez, gailurrean argazkia ateratzeko ia barrena egiten dira eta tenperatura ona egiten duenez, praktika motzekin ibili ginen. Nik neuk altuera nabaritu nuen baina badakit horrelakoetan nola jokatu. Nabaritu bezain laster, gorpuzka hidraturatzen zate 5.000 metroko mendia bat igotzen saiatzea

### Inoiz ikusi dudun egunentzira poltiena iruditu zitzaidan Kilimanjaroa gailurretik ikusitakoa.



Kilimanjaroa ere inoiz da Tanzania! Jesus Mari Presari esker, Sullu gorria onarritako lanpamendua izan zen.

### Urrutira joateko joera duyu baina gure inguruan paraje zoragarriak daude. Hauak ezagutzeko merxezi duela iruditzen zait.

borazo igo nuen duela urte batzuk honek 6.500 metro inguru ditu. Iuguraha ere igo ita nago, egun ezin da igo kea botatzen ari delako eta aipatutako Akonkaguan, 6.100 metrotaraino igo nuen nahiz eta gailurrik ez egin. Besele Alpetan ere ibil-itia nago.

**Afrika aldean, mendira igotzeko zain, turismorik egin al duzu?** Irarngiren izan zen Salarria. Maynara lakurten inguruan eta Corogoro-ti, paraje berrak edertzen. Bi eguneko irau zuten safariak, baina animaliak ikusten ari ginen zehar oso azkar pasatu zitzaizun. Semak argazkiak egiten pasa zituen orduak, dena berrak harrigarri zelako. Niritzat, bidaiak, aspaldiko amets bat beretza izan da eta asko disfrutatu dugu esperientziarekin guztioz.

**Hurrengo bidaiak zain izango duzu penhasen al ibidatzea?** Asko gogoratzen zait bidaietara eta beste durreko animalia ikusitakoak. Hurrengo bidaiak zain izango duzu penhasen al ibidatzea?

**Masaien bizimodua bertatik bertara ikusteko, zer egin zenuk?** Haseko Masai-ekin egoteko ordaindu behar da. Tribuko nagusarekin sareta negoziatu behar da baina ez da gogoratzen. Masaiak berrak gogoratzen dira. Masaiak berrak gogoratzen dira.

Ume guztiak gerturatzeko zaitzuko eta bereak egindako bitartek saltzeko gogorak dira. Euren bizimodua, denboran aluzeko mendia urte egitea dela dirudi.

**Orduen egin dudun mendia altuena da Kilimanjaro?** Ez, Ekuadorren dagoen Chim-



Kiroletako oharrak



**Master ataleko entrenamenduak**

Buruntzaldea Igeriketa taldeak jakin arazten du master ataleko entrenamendu egunak eta orduak erabaki dituela. Egunak astelehena, asteazkena eta ostirala izango dira. Ordutegiari dagokionez, hiru daude aukeran: 7:30-8:30, 16:15-17:15 eta 20:15-21:15.

Hauetan parte hartu nahi duten herritarrekin bilera informatibo bat egin nahi du Igeriketa taldeak master atalaren inguruko antolatetaren berri emateko. Bilerari urriaren 15ean izango da, larunbata 12:30etan, Lasarte-Oriako osasun zentroaren aurrean.

Inskripzioa bertan egin ahal izango da edo bestela astelehenean ostiralera bitartean 18etatik 21etara Lasarte-Oriako igerilekuan Borjagatik galdetuz. Entrenamenduak urriaren 17an hasiko dira.

**Futbol porra 2011-2012**

Ostadar S.K.T.-k

antolatzen duen futbol-leko porrari buruz eskaini dugun informazioa akatsa dago.

Txartelak jasotzeko azken eguna urriaren 15a izango da eta ez 8an TXINTXARRIKO aurreko zenbakietan argitaratu dugun bezala.



# Areto-futboleko txapelketa herrikoia gaur hasiko da Michelingo gunean

■ Ostadar S.K.T.-k antolatzen duen XXIX. txapelketa da ■ Hemezortzi talde lehiatuko dira maiatzaren 19an jokatu den final handira iristeko

Ostadar Kirol fundazioak antolatzen duen areto-futbol txapelketa herrikoia gaur, ostirala, 19:30ean, emango zaio hasiera.

XXIX. txapelketa honetako denboraldiak ez dakar berrikuntza handirik antolazaleek jakin arazi dutenez.

Hala ere, 18 talde dira aurrean finalera iristeko gogor arituko direnak. Ohiko Izarra, Ilargi, Oria kristaldegia, Trumoi, El bar de Mau, Illum, Indaux, Naiban, Balerdi harategiak, Ayete, Buenetxea Dakara, El punto, Viña del Mar, Los tiburones rojos, Txindoki eta azken urteetako irabazleak, ISU Leihoak eta Izkiña.

Iaz baino bi talde gutxiago dira eta horrek lehiaketa sisteman aldaketa batzuk egitea suposatuta duela aipatu dute.

**Lehiaketa**

Gaur hasten den denboraldiak bere lehengo fasean 17 jardunaldi izango ditu eta martxoaren 25ean amaituko da.

Ostadarreko arduradunek azaldu dutenez, fase honetan liga sistema jarraituz jokatu da eta itzuli batera.

Jardunaldi bakoitzean bederatzita partida izango dira ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan banatuak eta



Aurreko bi denboraldietan, Izkiña taberna eta ISU Leihoak taldeak iritsi dira final handira eta biek lortu dute txapela. Ea aurrete.

Michelingo areto-futboleko pistan izango dira.

Hainbat jardunaldi atzeratu behar izan ziren uurreko denboraldian euria sartu eta kondentsazioak pista bustitzen zuelako. Horregatik, "ea aurrete zortea dugun eta ez dugun pistarekin hainbeste arazorik izaten," azpimarratu dute.

**Final handirako bidea**

Bestalde, txapelketaren bigarren fasean, taldeak bi ligatan banatuko dira, play-offa eta

konsolazio liga, sailkapenaren arabera.

"Lehenengo 8 taldeek play-offean parte hartuko dute. Hauek final laurdenak eta finalurrekoak joan etorrrian jokatu dituzte eta maiatzaren 19an, finala jokatuko da," adierazi dute.

Gainontzeko taldeak bi multzotan banatuko dituzte. Hauek ligaska jokatu eta multzo bakoitzeko lehenengoek jokatuko dute konsolazioko finala.

**Aldaketa gutxi**

Honetaz gain, arauetan aldaketarik ia ez da egongo. "Gauza bakarra aldatzen da. Talde bakoitzak baloi bat gehiago eraman beharko du partidatar" aipatu dute antolazaleek.

Era berean, txapelketaren ordutegiak lehenengo asteartean zehaztu bazituzten ere, ohikoa den bezala, asteazketan ordu aldaketak egiteko bilduko direla azpimarratu dute. •

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 15**

- 10:30ean, Ostadar-Zarauz (Infantil Txikiak) Michelinen.
- 11:00etan, Usurbil-Texas Lasartearra (I. Kadetea) Harane, Usurbilen.
- 12:00etan, Ostadar-Aiõrga (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinen.
- 12:00etan, Sance-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Felix Garin, Donostian.
- 13:30ean, Ostadar-Ekintza (I. Infantil) Michelinen.
- 15:30ean, Ostadar-Intxaurdi (Emakumezkoen Erregionala) Michelinen.
- 17:00etan, Beasain-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Loiaz, Beasainen.
- 17:15ean, Ostadar-Martutene (I. Erregionala) Michelinen.

**Igandea 16**

- 10:30ean, Ostadar-Astigarragako Mundarro (I. Kadetea) Michelinen.
- 13:45ean, Ekintza-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Berio, Donostian.
- 17:45ean, Munibe-Ostadar (Erregional Goren) Berio, Donostian.

**ARETO FUTBOLA**

**Ostirala 14**

- HERRIKO TXAPELKETA
- 19:30an, El bar de Mau-Izkiña
- 20:30ean, Ayete-Buenetxea

**Larunbata 15**

- 16:30ean, Tolargi-ISU Leihoak (Euskal Liga) Belabieta kiroldegia, Ibarra.
- 17:30ean, Buruntza Aldaz H.K.-Ibarra (Nazional B mailan) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

- 09:10ean, Izarra-Ilargi
- 10:10ean, Oria kris.-Trumoi
- 11:10ean, Dakara-ISU Leihoak
- 12:10ean, El Punto-Viña del Mar
- 13:10ean, Los tiburones rojos-Txindoki

**Igandea 16**

- HERRIKO TXAPELKETA
- 10:00etan, Illum-Indaux
- 11:00etan, Naiban-Balerdi harategiak

**PILOTA**

**Ostirala 14**

- 19:00etan, Tartaloetxe-Intza (Eskuz binaka, III. mailako seniorra) Zegaman.
- 19:00etan, Urnieta 1-Intza 3 (Eskuz binaka, I. urteko infantil) Urnietan.
- 19:00etan, Intza-Txapagain 2 (Eskuz binaka, I. mailako kadetea) Ibaetan.

- 19:15ean, Usurbil-Intza 2 (Eskuz binaka, II. urteko alebina) Usurbilen.
- 20:15ean, Eibar-Intza I (Eskuz binaka, II. mailako kadetea) Astelehena, Eibarren.

**Larunbata 15**

- 16:00etan, Intza 1-Zestoa 2 (Eskuz binaka, II. urteko alebina) Michelingo pilotalekuan.
- 16:00etan, Intza 1-Urnieta 2 (Eskuz binaka, I. urteko infantil) Michelingo pilotalekuan.
- 16:00etan, Intza 1-Antigua 3 (Eskuz binaka, II. urteko infantil) Michelingo pilotalekuan.
- 16:00etan, Gazteleku-Intza 2 (Eskuz binaka, I. urteko infantil) Andoingo ikastola.
- 16:00etan, Zestoa 2-Intza 2 (Eskuz binaka, II. urteko infantil) Zestoon.

**Igandea 16**

- 10:00etan, Ilunpe 2-Intza (Eskuz binaka, I. mailako seniorra) Frontoi txiki, Azpeitian.

**ATLETISMOA**

**Igandea 16**

- 10:00etan, herriko hainbat korrikalari 15 km Donostiako Klasika proban parte hartuko dute.

**ERRUGBYA**

**Igandea 16**

- Goiza osoa, Beltzak-Ostadar rugby eskolako benjamin eta alebinek Debako ondartzan denboraldiko lehen kontzentrazioa izango dute.
- Goiza osoa, Beltzak-Ostadar rugby eskolako infantilek entrenamendu tekniko dute Aieteko rugby zelaian.

Egunero

**Erakusketa**

DIEGO LETAMENDIA BELZUNCEREN erakusketa zabalik da urriari zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Ostirala, 14

**Emanaldia**

AURORA PARRA sopranoaren kontzertua. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:30ean**. BABESLEA, Olaizola-Jauregui Abokatu-**en** 25. urteurrena.

Larunbata, 15

**Dantza**

ION MUNDUATE KONPAINIAK "SIN TÍTULO, EN COLORES" lana eskainiko du, LASARTE-ORIA DANTZAN ekimenaren bigarren saioan. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **20:00etan**. Sarrera, **6 euro**.

**Antzerkia eta musika Abend-en**

Xebe Diezek DIBERTIMENDI umorezko antzezlan eskainiko du. Honetan bi istorio celebre azalduko dizkie ikusleei. Ostean, VAN POPEL Zuhaitz Gurrutxaga & CO. taldeak pop eta rock doinuak eskainiko ditu.

**OSTIRALA, URRIAK 14**  
**23:30ean**  
**ABEND KAFE ANTZOKIAN**

Igande, 16

**Zinea**

"LOS PINGÜINOS DEL SR. POPER" filma ikusgai izango da, HAURRINTZAKO ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. Sarrera, **3,30 euro**.



Osteguna, 20

**Zinea**

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik "CHICO Y RITA" filma ikusgai izango da OSTEAGUN ZINEA atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **21:30ean**, GAZTELANIAZ. Sarrera, **4,30 euro**.



**Oharrak**

**Lasarte-Oriako DYAre**  
**25. urteurrena**

Aurten 25 urte beteko ditu Lasarte-Oria eta Usurbilgo DYA errepidean laguntza eskaintzen duen erakundeak eta azaroaren 5an, besteak beste, bazkari batekin ospatuko dute urteurrena.

DYAKo bazkide eta bazkide ohiak daude gonbidatuta eta informazio edo argibide gehiago eskuratu nahi dutenek DYAre 943 46 46 22 telefono zenbaki nagusira deitu beharko dute.

**Erketz Dantza Lagunak**

Erketz Dantza Lagunak taldeak jakinarazten du dantzatzeko ikasteko saioak hasi dituztela.

Taldea ez da erabat osatu, leku dago eta interesatuak entsegu egunean, asteartean bertan Zumaburuko ikastolako gimnasioan 20:00etatik 21:30era azaldu eta izena eman beharko dute.

**Euskal Dantza taldea**

Landaberi BHIIn entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean hasiko da.

Entseguak astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintzarri@txintzarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astehelenerdik ostiralera 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18  
Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

**Eskutitza**

**Benetako demokrazia orain: Urriak 15eko manifestua**

Pertsona arruntak gara: zu bezalakoak: egunero esnatzen garenak, ikasteko, lan egiteko edota lana bilatzeko; familia eta lagunak dituzten pertsonak. Egunero gogor lan egiten duten pertsonak, bizitzeko eta geure artean daudenei etorkizun hobea emateko.

Batzuk aurrerakoiak gara: esaten dugu, besteok kontsebadoreak. Batzuk fededunak, besteok ez. Batzuk ideia politiko zehatzak dauzkagu, eta besteok apolitikotzat hartzen dugu geure burua ... baina guztiok kezkatuta eta haserretuta gaude geure artean dagoen egoera politiko, ekonomiko eta soziala direla eta. Geure alderdi politiko, enpresari eta bankarien ustelkeriagatik ... herritarrok babesgabe gaudelako.

Egoera honek egunero kaltetzen gaitu. Baina guztion artean alda dezakegu. Lan egiteko ordua da, guztion artean sozietate hobea garatzeko momentua. Horregatik honako hau defendatzen dugu:

- Aurreratuta dagoen sozietate baten lehentasunak honako hauek izan behar dira: berdintasuna, aurrerapena, solidaritatea, kulturarako sartzeko librea, iraunkortasun ekologikoa eta pertsonen garapena, ongizatea eta poza.
- Eskubide oinarritzko batzuk gizarte guztietan ziurtatuta egon beharko litzateke: etxebizitza, lan, kultura, osasun, hezkuntza, politikan parte-hartze, garapen pertsonala, eta bizitza osasun eta zoriontsua edukitzeko behar diren gauzatarako eskubidea.
- Gaur egungo gobernu eta sistema ekonomikoak ez dituzte lehentasun hauek kontuan hartzen, eta horrek

gizon-emakumeen garapena eragozten du.

• Demokrazia herritik etortzen da (demos=herria; krazia=gobernua), beraz herriak izan behar du gobernuaren jabea. Hala ere, herrialde honetan ia politiko gehienok ez gaituzte ezta entzuten ere. Haien lana geure ahotsa instituzioetara eramatea izan beharko litzateke, herritarren parte-hartze politikoa errazteko, bide zuzenak erabiltzen, gizartearen ongizatea lortzen saiatzeko. Baina haiek geure lepotik aberastu eta euren egoera hobetzen dute, botere ekonomikoan jarraibideak baino ez jarraituz, eta boterea tinko atxikitzen "PPSOE" sigla mugiezinak hasten diren diktadura partitokratiko baten bidez.

• Gutxienez botere gehiago edukitzeko nahiak desberdintasuna, amorrua eta injustizia sortarazten ditu, eta honek geuk errefusatzeko dugun bio-

lentziara eramaten du. Zaharkitu eta naturaren kontrako dugun modelo ekonomikoak sozietatea blokeatzen du. Errekurtso guztiakin bukatzen dituen egoera sortzen da, pertsona gutxi batzuk aberasten eta besteak gero eta pobreako uzten. Kolapsatu arte.

• Sistemaren xede eta nahia bakarra gero eta diru gehiago edukitzea da, eragin-kortasuna eta sozietatearen ongizatea kontuan hartu barik. Baliabideak xahutzen, planeta birrintzen, langabezia eta zorizarreko kontsumitzaileak sortarazten.

• Herritarrok makinaria baten zatitxo bat gara, geure beharrei buruz ezer ez dakien gutxiengo bat aberasteko. Anonimoak gara, baina geu barik hemen dagoen ezer ez litzateke egongo, geuk mundua mugiarazten dugulako.

• Sozietate bat izanez, gehiengoaren onura ekartzen

ez duen errentagarritasun ekonomiko abstraktu batean geure etorkizuna ez jartzen ikasten baldin badugu, guztiok pairatzen ditugun gehiegikeriak eta gabetasunak ezabatu ahal izango ditugu.

• Iraultza etikoa behar dugu. Dirua gizakiaren gainean jarri dugu. Geure zerbitzuan jarri beharko genuke. Pertsonak gara, ez merkatu-produktuak. Ez naiz erosten dudana, gauzak erosten ditudan zergatia, ezta erosten dionanari ere.

Arestian esandakoa dela eta, haserretuta nago.

Aldatu ahal dudala uste dut.

Lagundu ahal dudala uste dut.

Badakit guztion artean erin dezakegula. Irten geurekin. Zeure eskubidea da.

**Benetako demokrazia orain**

# Semblante Andaluz-en Kultur Aste irekia

■ Kultur egitarau zabala antolatu du astebururako andaluziarren elkarteak ■ Aurten ekintza denak hiru egunetan pilatu dira, ostiraletik igandera ■ Lasarteoriatarren parte hartzea bultzatu nahi dute

Herriko Semblante Andaluz elkarteak bederatzigarren kultur astea ospatuko du asteburuan. Abdon Fernandez elkartekeko presidentearen iritziz lan handia egin dute asteburuko egitaraua zabala eta erakargarria egiteko "elkarteko bazkideen parte hartzeaz gain, ekintza guztiak irekiak dira aurten eta herritarrak parte hartzera animatu nahi ditugu".

Maidar AZURMENDI

Aste osoan ekintzak antolatzea luzeegi gertatzen zela ikusita, zuzendaritzako kideek egitaraua hiru egunetan osatzeko erabaki zutela azaldu du Fernandezek: "jendearen parte hartzea eskasa zen batez ere aste barruko ekintzetan eta gure lana zabaltzeko, asteburua aproposagoa zela iruditu zitzaigun. Gainera herritarrak gurekin ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditugu, festa ez dadila izan soilik gure bazkideentzat."

Kirolak, ohi bezala, bere protagonismoa izango du egitarauaren baitan. Aurten Realak liga irabazi zuela 30 urte betetzen dira eta hau ospatzeko asmatan, Tito Irazusta TeleDonostiko zuzendari eta kirol kazetariak solasaldi bat gidatuko du Golf plazan. Honen aurretik, Gijon-eko azken partida hura gogoratzeke proiektzio bat egingo da. Gainera garai hartako jokalaria batzuk bertan egongo direla aurreratu dute talde txuri urdinetik. Horretaz gain, igan-

dean nesken saskibaloia partida eta gizonezkoen futbol neurketak jokatuko dira Atxobakarren. Parte hartzea haue- tan ere, irekia izango da baina aurrez elkartearen egintzan izena eman beharko da.

Berrikuntzak asko dira, batetik Gipuzkoako Trenbidearen Lagunen Elkartekeko kideen hitzaldia egingo da larunbatean elkartearen. Hauek 70. hamarkadan Andaluzia eta Extremaduratik hona iristen ziren trenen inguruan hitz egin eta bideo bat eskainiko dute.

Horretaz gain, hauek utzitako hiru trenen maketak ikusgai izango dira asteburuan zehar elkartearen. Honen aurretik hamaiketako herrikoia egingo da, salda, arrautza friji- tuak eta txorizoa, dena ardoa- rekin lagunduta. Bost euroko kostua izango du hamaiketakoak eta nahi duenak parte hartu ahal izango du.

## Adin guztientzako

Larunbat arratsaldean Golf plazan, familientzako ginkana prestatu da, joko eta froga guztiak haurrak helduekin



laz ospatutako Aste Kulturalean andaluziarren elkartearen egindako emanaldia.

parte hartzeko pentsatu dira. Ondoren, Gure Ametsa elkartekeko buruhandiak izango dira 17:00etatik aurrera eta 18:00ak inguruan, haurrentzako txokolatada. Egunari amaiera emateko, dantzaldia egingo da 'Hmos Arregin' taldearen eskutik.

Ohiko karta txapelketak ez du hutsik egingo. Aurten, elkartekeko bazkideen artean egin beharrean, Andaluzia eta Extremadurako elkarteetako bazkideen artean jokatuko da larunbatean 16:30ean. Igan-

dean berriz, lehen lore lehiaketa egingo da eta irabazleak produktu iberikoekin osatutako saskia eramango du etxera "aurkeztutako lan guztiak oholta inguruan jarriko dira Zambra taldearekin egingo den folklore jaialdian apaingarri izan daitezten".

Aste kulturalari bukaera emateko, gitarra elektrikoaren zozketa egingo da. Honetan parte hartzeko asteburu osoan tabernan txartelak euro batean eskuragarri egongo dira. •

## EGITARAUA

### Hiru egunetako ospakizuna

#### Ostirala

18:00: Realak lehen liga irabazi zuela XXX. urteurrenaren ospakizuna Golf plazan  
19:30: Ohorezko ardoa

#### Larunbata

11:00: Herri hamaiketako.  
12:00: Hitzaldia Gipuzkoako Trenbidearen Lagunen Elkartearen eskutik eta tren erakusketa egoitzan  
16:00: Familientzako Ginkana herrikoia Golf plazan  
16:30: Mus eta Tute txapelketa, Andaluzia eta Extremadura elkarteetako bazkideen artean  
17:00: Gure Ametsa elkartekeko Buruhandiak  
18:00: Haurrentzako txokolatada Golf plazan  
23:00: Dantzaldia 'Hmos Arregin' taldearekin

#### Igandea

12:00: Nesken saskibaloia partida Atxobakarren  
12:30: Gizonezkoen futbol partida Atxobakarren  
13:00: Lehenengo lore lehiaketa Golf plazan  
14:30: Bazkari herrikoia  
18:00: 'Zambra' musika taldearen emanaldia Golf plazan  
19:00: Gitarra elektrikoaren zozketa



Etorri, probatu eta ikusi gure kalitate-prezio onak

# txixarro

## erretegia

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak  
Bataioak

Familiarteko bazkariak

....

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)  
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964